



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA
ARABAKO FORU ALDUNDIAREN
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA,
ZIRKULAZIOAREN ETA
IKUSKAPENAREN, ERREPIDEEN ETA
BIDE INFORMAZIOAREN TRUKEAREN
ARLOAN, BIDE SEGURTASUNA
HOBETZEKO**

Gasteiz, 2022ko aren... a

BILDU DIRA

Batetik, Segurtasun sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izan.

Bestetik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izan.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari dagozkio ibilgailuek Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio bideetako zirkulazioaren eta bide segurtasunaren inguruko eskumenak, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak 5.1 e) artikuluan ezarritakoarekin.

Egiteko horien artean dago zirkulazioa eta bide segurtasuna zaintzeko, arautzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko neurriak hartzea, eta egitekoak Trafiko Zuzendaritzaren bidez betetzen dira, bat etorritik Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoarekin.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS
VASCO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE
ALAVA EN MATERIA DE TRAFICO E
INSPECCION, CARRETERAS E
INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN
VIARIA PARA LA MEJORA DE LA
SEGURIDAD VIAL.**

En Vitoria-Gasteiz, a xx de xxx de 2022

REUNIDOS

De una parte, el Consejero de Seguridad en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Y de la otra, el Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad en representación de la Diputación Foral de Álava;

EXPONEN

I.- Al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco le corresponden las funciones relativas al tráfico y seguridad vial por las vías de comunicación de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.1.e) del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Estas funciones, entre las que se incluye la adopción de medidas de vigilancia, regulación, gestión y control del tráfico y la seguridad vial, se ejercen a través de la Dirección de Tráfico, de conformidad con lo establecido en el artículo 17 del Decreto 6/2021, de 19 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad.



II.- Lurralde historikoetako foru organoei dagokie errepideak planifikatzea, proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea, aldatzea, finantzatzea, erabiltzea eta ustiatzea, bat etorritz Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7 a) artikulua 8. apartatuan ezarritakoarekin; halaber, errepideak zirkulaziorako segurtasun baldintzarik onenetan mantentzea dagokie, bai eta haietan bide seinale eta marka egokiak instalatzea eta horiek zaintzea ere, bat etorritz arazoaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazio Araudi Orokorrak 139. artikuluan ezarritakoarekin.

Arabako Lurralde Historikoan, Arabako Foru Aldundiaren eskumen dira errepideak planifikatzea, proiektatzea, eraikitzea, zaintzea, aldatzea, erabiltzea eta ustiatzea, eta hori Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren bidez egiten du, bat etorritz sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuak ezarritakoarekin.

III.- Bi aldeek, dagozkien egitekoen eremuan, lankidetzaz hitzarmenak izenpetu zituzten 2005eko azaroaren 22an eta 2017ko martxoaren 16an, zirkulazioaren eta errepideen arloan.

IV.- Lehenengo hitzarmena agortu egin zen, batetik, klausularen bat bete zelako, eta, bestetik, aurreikuspen batzuk zaharkituta geratu zirelako, azken urteetako aurrerapen eta hobekuntza teknologikoengatik. Horren guztiaren ondorioz, bigarren hitzarmena sinatu zen, baina indarra galdu du alde bakoitzak bere eginkizunak kudeatzeko dituen behar berriei erantzuteko.

V.- Bat etorritz, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoa Kudeatzeko Sistema arautzen duen eta, bestetik, Euskadiko

II.- A los Órganos Forales de los Territorios Históricos les corresponde la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras, en base a lo indicado en el artículo 7 a), apartado 8, de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, mantenerlas en las mejores condiciones posibles de seguridad para la circulación e instalar y conservar en ellas las adecuadas señales y marcas viales, conforme a lo previsto en el artículo 139 del Reglamento General de Circulación aprobado por Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre.

En el ámbito del Territorio Histórico de Álava, la Diputación Foral de Álava ejerce las funciones de planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, uso y explotación de carreteras, movilidad y gestión de la seguridad vial, a través de su Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad, de acuerdo con el Decreto Foral 47/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 22 de octubre, que aprueba la estructura orgánica y funcional del citado Departamento.

III.- Dentro del ámbito de las funciones que corresponden a ambas partes, se firmaron convenios de colaboración el 22 de noviembre de 2005 y el 16 de marzo de 2017 en materia de tráfico y carreteras.

IV.- El primer convenio se agotó, por una parte, por cumplimiento de alguna de sus cláusulas y, por otra, algunas previsiones habían devenido obsoletas por los avances y las mejoras tecnológicas de estos últimos años. Todo ello motivó la firma del segundo convenio, que ha perdido su vigencia, para dar respuesta a las nuevas necesidades requeridas para la gestión de las funciones que cada parte tiene conferidas.

V.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7 del Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se regula el sistema de gestión del tráfico interurbano

Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuak 7. artikuluan ezarritakoarekin, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak eta errepideen arloan eskumenak dituzten administrazioek elkarlanean jardungo dute, bakoitza bere eskumenez baliatuaz, eta honako helburu hauekin:

Bakoitzak dituen eskumenak gauatzeko garrantzizko informazioa trukatzea.

Bakoitzak dituen eskumenak gauatzeko elkarri laguntza ematea.

Erakunde bakoitzaren jarduketa plan eta proiektuen gaineko informazio ematea, bai eta bakoitzak dituen eskumenak gauatzeko interes komunekoa beste edozein jarduketaren gainekoa ere.

VI.- Horiek kontuan hartuta, aldean ustetan, bi administrazioen arteko lankidetzak bideak egituratu behar dira, bakoitzari dagozkion eginkizunak gauzatzerakoan eraginkortasuna hobetzeko, horrek zuzenean eragiten baitio bide segurtasunari. Hori dela eta, lankidetzak hitzarmen berria izenpetu behar da, aurreko hitzarmen ildoari jarraituko diona zirkulazioaren eta errepideen arloko konpromisoei eta betebeharrei dagokienez, bai eta premia eta konpromiso berriak zehazteko ere.

VII.- Aipatutako aurrekariak aintzat hartuta, bi aldeek lankidetzak hitzarmen administratiboa izenpetzea erabaki dute. Hitzarmenak honako klausula hauek jasotzen ditu:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da esku hartzen duten administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazio marko bat ezartzea, esleituta dituzten eginkizunak betetzeko beharrezkoa den **errepideei buruzko informazioaren truke arin eta egonkorra** diseinatzeke, eta, hala, dagozkien eskumenak

en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y se crea el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi, la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco y las administraciones competentes en materia de carreteras colaborarán en el ejercicio de sus respectivas competencias con el fin de posibilitar:

El intercambio recíproco de información relevante para el ejercicio de sus respectivas competencias.

La prestación de auxilio recíproco en el ejercicio de sus propias competencias.

La información sobre los proyectos y planes de actuación de cada institución y cualesquiera otras actuaciones de interés común para el ejercicio de las competencias propias de ambas.

VI.- En atención a las anteriores consideraciones, las partes entienden que la necesidad de articular cauces de colaboración entre las dos Administraciones para mejorar la eficacia en el ejercicio de las funciones que cada una de ellas tiene encomendadas, y que afectan de manera directa a la seguridad vial, requiere la firma de un nuevo convenio colaboración que siga la línea de los anteriores en cuanto a compromisos y obligaciones en materia de tráfico y carreteras, así como con la especificación de las nuevas necesidades y compromisos.

VII.- Teniendo en cuenta los antecedentes citados, ambas partes acuerdan suscribir un convenio administrativo de colaboración, que se rige conforme a las siguientes:

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- Objeto del convenio.

Es objeto de este convenio establecer un marco de colaboración y coordinación entre las administraciones intervinientes con el fin de diseñar un **intercambio fluido y estable de información viaria necesaria** para el ejercicio de las funciones que tienen encomendadas,



betez bide segurtasuna hobetzeko egiten dituzten jarduketan eraginkortasuna hobetzeko. Lankidetzaz bide horiek jarraian azaltzen diren eta hurrengo klausuletan garatzen diren jarduketa ildoetan zehazten dira:

BIGARRENA.- Hitzarmenaren eremua.

Hitzarmen honen aplikazio eremua Arabako Lurralde Historikoko Errepideen Foru Sarea izango da, eta arreta berezia jarriko du lehentasunezko eta oinarritzko intereseko sareetan; izan ere, zirkulazio handia izaten dute, eta edozein gertakarik auto pilaketa arazo larriak eragin ditzake, eta horrek eragina izan dezake Arabako bide sareko maila txikiagoko beste errepide batzuetan.

HIRUGARRENA.- Informazioa trukatzeko jarduketa ildoak

Alderdi sinatzaileek zirkulazioa, bide segurtasuna eta errepideak kudeatzeko interesgarriak diren datuak biltzeko eta transmititzeko sistemak dituzte, bakoitzak bere eskumen-eskudantziak gauzatzeko, eta sistema horiek interesgarriak izan daitezke beste alderdiak bere eskumenak gauzatzeko. Eraginkortasun eta efizientzia irizpideen arabera, alderdi sinatzaileek dituzten trafikoko informazio sistemen erabilera partekatua behar dute.

Besteak beste, lankidetzaz bideak honako jarduketa ildo hauetan zehazten dira:

– Garrantzizko informazioa trukatzeko, bakoitzak dituen eskumenak gauzatzeko. Berebiziko arretarekin jorratu behar da honako gai hauen inguruko informazio trukea:

- Zirkulazio datuak.
- Errepideetan instalatutako bideo kamerekin lortutako seinaleak.
- Mezu aldakorrek panelek eskaintzen duten informazioa eta horietan eskaini beharreko informazioaren inguruko proposamenak.
- Istripu tasa.

mejorando la eficacia de las actuaciones para la mejora de la seguridad vial que llevan a cabo en cumplimiento de sus respectivas atribuciones competenciales. Los cauces de colaboración y coordinación se concretan en las estipulaciones siguientes.

SEGUNDA.- Ámbito del convenio.

El ámbito de aplicación de este convenio abarcará a la Red Foral de Carreteras del Territorio Histórico de Álava con especial atención a las redes de Interés Preferente y Básica, debido a los altos índices de circulación que soportan y que cualquier incidente puede degenerar en graves problemas de congestión de tráfico con repercusión en otras carreteras de menor rango de la red viaria del territorio alavés.

TERCERA.- Líneas de actuación en el intercambio de información

Las partes firmantes disponen de sistemas de recogida y transmisión de datos de interés para la gestión del tráfico, la seguridad vial y la gestión de las carreteras para el ejercicio de sus respectivas atribuciones competenciales, que pueden ser de interés para el ejercicio de las competencias de la otra parte. Criterios de eficacia y eficiencia hacen deseable que la utilidad de los sistemas de información de tráfico de que disponen las partes firmantes deba ser compartida.

Entre otras, los cauces de colaboración se concretan en las siguientes líneas de actuación:

– El intercambio recíproco de información relevante para el ejercicio de sus respectivas competencias. Con especial atención al intercambio de:

- Datos de tráfico.
- De señales obtenidas por las cámaras de vídeo instaladas en carretera.
- De la información que ofrecen los paneles de mensaje variable y de la propuesta de información a ofrecer por los mismos.
- De accidentalidad.

– Errepideetan ekipamenduak instalatzeko baimenen tramitazioa arintzea.

– Bi administrazioak lankidetzan jardutea eta elkar laguntzea, beren eskumenak eraginkortasunez gauzatzeko bil ditzaketen prozeduretan eta gaietan.

LAUGARRENA. Istripu tasari buruzko datuak trukatzea

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du trafiko istripuei buruzko fitxategiko informazioa Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari lagatzeko, jarraian zehazten diren baldintzen arabera.

Istripu bakoitzaren inguruan, gutxienez, honako eduki hauek eman behar ditu (ez dute inolaz ere datu pertsonalik izango):

- Gakoa edo erreferentzia
- Probintzia
- Data: eguna, hila eta urtea
- Ordua eta minutuak
- Hildako kopurua
- Larri zauritutakoen kopurua
- Arin zauritutakoen kopurua
- Onik irtendakoen kopurua
- Errepidea
- Kilometro puntua
- Hektometroa
- Noranzkoa
- Udalerria
- Azaleraren egoera
- Argitasuna
- Faktore atmosferikoak
- Istripu mota
- Ibilgailu mota
- Izandako faktoreak
- UTM koordenatuak
- Animaliekin izandako istripuak: animalia mota.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du Arabako Lurralde Historikoaren eremu geografikoan izandako

– La agilización de la tramitación de las autorizaciones para la instalación de equipamientos en las carreteras.

– La cooperación y asistencia en aquellos procedimientos y materias que ambas administraciones puedan recabar para el eficaz ejercicio de sus competencias.

CUARTA. Intercambio de datos de accidentalidad

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco se compromete a ceder información del fichero de accidentes de tráfico al Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava en las condiciones que a continuación se especifican.

De cada accidente se proporcionarán, al menos, los siguientes contenidos, que en ningún caso incluirán datos personales:

- Clave o referencia.
- Provincia.
- Fecha: día, mes y año.
- Hora y minutos.
- Número de muertos.
- Número de heridos graves.
- Número de heridos leves.
- Número de ilesos.
- Carretera.
- Punto Kilométrico.
- Hectómetro.
- Sentido.
- Municipio.
- Estado de la superficie.
- Luminosidad.
- Factores atmosféricos.
- Tipo de accidente.
- Tipo de vehículo.
- Factores concurrentes.
- Coordenadas UTM.
- Accidentes con fauna: especificar tipo de animal.

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco se compromete a ceder los datos correspondientes a los accidentes ocurridos en el ámbito geográfico

istripuei dagozkien datuak lagatzeko urtean bi aldiz, gutxienez.

Lagatako datuen izaera behin-behinekoa izango da. Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzaren “Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikokan” azaltzen diren datuak baizik ez dira behin betiko datu ofizialak. Hori dela eta, lagatako fitxategiko datuak ezin izango dira modu publikoan erabili.

Lurralde historikoko errepideetan izandako garrantzi handiko istripuen edo hildakoak eragin dituztenen inguruan emango da informazioa. Gainera, balizko arrazoen eta horien bilakaeraren gaineko informazioa igorriko da.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak, halaber, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari jakinaraziko dio zeintzuk diren foru titulartasuneko bide publikoetan eta errepideen sareko elementuetan kalteak eragiten dituzten eragileei buruzko datuak.

BOSGARRENA. - Istripu tasari buruzko azterlanak trukatzea

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak istripu tasari buruzko azterlanak trukatzeko konpromisoa hartzen dute, baita monografikoak ere, eta, bereziki, Euskal Estatistika Planean jasotako azterlanak, baldin eta alderdi bakoitzak hitzarmen hau gauzatzeko protokoloan zehazten den moduan egiten baditu.

SEIGARRENA. - Zirkulazio datuak trukatzea

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute erabilgarri dauden estazioek lortutako zirkulazio datuei buruzko informazioa trukatzeko. Sistemak eskain dezakeen handiena izango da datuak eguneratzeko maila. Datu truke horren bidez, honako hauek jorratuko dira gehienbat: intentsitateak, abiadurak eta ibilgailuen sailkapena.

del Territorio Histórico de Álava, como mínimo, dos veces al año.

Los datos cedidos tendrán el carácter de provisionales. Únicamente los datos que figuren en la publicación del «Anuario Estadístico de Accidentes de Tráfico» de la Dirección de Tráfico del Departamento de Seguridad tendrán el carácter de datos definitivos y oficiales. Por tal razón no podrá hacerse ningún uso público de los datos de este fichero.

Se informará sobre los accidentes mortales o de especial relevancia que se registren en las carreteras del Territorio Histórico. Además, se remitirá información sobre las posibles causas y evolución de los mismos.

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco también comunicará al Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava los datos de los causantes de accidentes que provoquen daños en las vías públicas y sus elementos de la red de carreteras de titularidad foral.

QUINTA. - Intercambio de estudios de accidentalidad

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco y el Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava se comprometen a intercambiar los estudios de accidentalidad incluidos los monográficos y, en particular, los estudios recogidos en el Plan Vasco de Estadística, que cada parte realice en los términos que se especifique, en su caso, en el Protocolo en ejecución del presente convenio.

SEXTA. - Intercambio de datos de tráfico.

Las partes firmantes se comprometen al intercambio de información de los datos de tráfico obtenidos por las estaciones disponibles. El grado de refresco de los datos será el máximo de que sea capaz cada sistema. El intercambio de datos se centrará, fundamentalmente, en intensidades, velocidades y clasificación de vehículos.

ZAZPIGARRENA. - Bideo trukea

Hitzarmenaren garapenean irudiak trukatzeko adosten den protokoloak xedatzen duenaren esparruan

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren bideetan instalatuta dituen kameren bideo seinalea beste alderdi sinatzaileari irisgarri egiteko, hark kontserbazio eta ustiapen eginkizunak eta bide segurtasuneko gainerako jarduketak gauzatu ahal izan ditzan.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du Arabako bideak kontserbatzeko eta ustiatzeko jarrita dituen kameren bideo seinalea irisgarri egiteko, trafikoa kudeatzeko, bai eta istripuak edo larrialdiak gertatzen direnean ere.

ZORTZIGARRENA. - Mezu aldakorreko panelak erabiltzea

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen xede diren bideetan instalatzen diren seinale aldakorreko panelen erabilera partekatua ahalbidetzeko, bide erabiltzaileei informazioa emateko eta, hala, dagozkien eskumenak gauzatzeko.

Horretarako, bi aldeek informazioa aurkezteko, balioztatzeko eta panel horietan argitaratzeko protokoloak garatuko dituzte.

BEDERATZIGARRENA. - Zirkulazio baimen osagarria duten ibilgailuak kudeatzeko eta kontrolatzeko tresnak erabiltzea

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du foru organoak jakinarazitako zirkulazio baimen osagarria duten ibilgailuen kontrol edo jarraipen tresna erabiltzea ahalbidetzeko. Era berean, baimen horiek kudeatzeko tresnak sortutako eta foru organoak informatu beharreko ibilbidea emateko konpromisoa hartzen du.

SÉPTIMA. - Intercambio de vídeo

En el marco de lo que disponga el protocolo de intercambio de imágenes que se acuerde en el desarrollo del convenio:

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco se compromete a hacer accesible la señal de video correspondiente a las cámaras que tiene instaladas en las vías objeto de este convenio a la otra parte firmante para ejercer sus funciones de conservación y explotación y demás actuaciones de seguridad vial en las mismas.

La Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava se compromete a hacer accesible la señal de video correspondiente a las cámaras que tuvieran instaladas en las vías para la conservación y explotación de las mismas, para los fines de la gestión del tráfico, así como en los casos de accidentes, urgencias o emergencias.

OCTAVA. - Utilización de los paneles de mensaje variable.

Las partes firmantes se comprometen a facilitar el uso compartido por las mismas de los paneles de señalización variable que se instalen en las vías objeto de este convenio para informar a las personas usuarias de la vía en el ejercicio de sus respectivas atribuciones.

Para ello ambas partes desarrollarán los protocolos relativos a la presentación de la información, su validación y publicación en dichos paneles.

NOVENA. - Acceso a las herramientas de gestión y control de vehículos dotados de autorización complementaria de circulación.

La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco se compromete a facilitar el acceso a la herramienta de control o seguimiento de vehículos con autorización complementaria de circulación informada por el órgano foral. Asimismo, se compromete a facilitar el itinerario a informar por el órgano foral generado por la herramienta de gestión de dichas autorizaciones.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du ibilbideak kudeatzeko tresnaren oinarri diren iragate murrizketa eta erreserben berri emateko Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari, bi urtean behin, gutxienez.

Alderdi sinatzaileek elkarrekin egingo dute lan, informazio trukea eta txosten izapidea arintzeko mekanismo egokiak garatzeko.

HAMARGARRENA. - Errepideetako eraikuntza plan eta proiektuei buruzko informazioa

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari beharrezko informazioa eman behar dio alde aurretik errepideak eraikitze plan eta proiektuei buruz. Komunikazio horiei esker, gainera, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak bide horietan egiten dituen proiektuak hobeto koordinatu eta modu eraginkorrean planifikatu ahal izango dira, eta horiek egiteko kostua txikiagoa izango da.

HAMAİKAGARRENA. - Errepideetan obrak gauzatzea

Arabako Foru Aldundiak zuzenean gauzatzen dituen obrak: Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzak Trafiko Zuzendaritzari alde aurretik jakinarazi behar dio zeintzuk diren zirkulazioari eragin diezaioketen obrak edo jarduketak, Trafiko Zuzendaritzak bidezko zaintza eta erregulazio neurriak har ditzan, beharrezkotzat jotzen badu.

Enpresa adjudikaziodunak edo Foru Aldundiaz bestelako erakundeek gauzatzen dituzten obrak: Enpresa edo erakunde horiek Arabako Trafikoko Lurralde Bulegoari jakinarazi behar diote obrak egingo dituztela, eta bulegoak bidezko jarraibideak emango ditu zirkulazioa erregulatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko.

HAMABIGARRENA. - Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroarekin konektatzea Arabako Foru Aldundiko Errepideen Kontrol Zentroak eta Arabako Bideak-Vías de Álava

La Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava se compromete a dar traslado a la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco con carácter bienal, por lo menos, de las restricciones y reservas de paso que sirven de base a la herramienta de gestión de itinerarios.

Las partes firmantes trabajarán conjuntamente para desarrollar los mecanismos adecuados para agilizar el intercambio de información y el trámite de informe.

DÉCIMA. - Información sobre Planes y Proyectos de construcción, en las carreteras.

La Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava informará, con la antelación suficiente, sobre los planes y proyectos de construcción en las carreteras de su titularidad. Estas comunicaciones, además, servirán para una mejor coordinación y eficaz planificación de proyectos de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco en dichos viales y un menor coste en la ejecución de los mismos.

UNDÉCIMA. - Ejecución de obras en las carreteras.

Obras ejecutadas directamente por la Diputación Foral de Álava: La Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava comunicará a la Dirección de Tráfico con la suficiente antelación la iniciación de la ejecución de todas aquellas obras o actividades que puedan afectar al tráfico para que la Dirección de Tráfico adopte las medidas de vigilancia y regulación oportuna en caso de que lo estime necesario.

Obras realizadas por empresas adjudicatarias o por entidades distintas de la Diputación Foral: Las empresas o entidades deberán comunicar la realización de las obras a la Oficina Territorial de Tráfico de Álava, la cual dictará las instrucciones que resulten procedentes para la regulación, gestión y control del tráfico.

DUODÉCIMA. - Conexión de los Centros de Control de Carreteras de la Diputación Foral de Álava y Arabako Bideak-Vías de Álava, S.A. con el Centro de Gestión de tráfico de

SA, bide informazioa trukatzeko, eta, hala, bide segurtasuna hobetzeko

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hartuko du bere gain zuntz optikoaren mantentze lanen kostua, bai eta kanalizazioa erabiltzeko alokairua ere.

Edonola ere, aldeetako bakoitzak hartuko du bere gain informazioa trukatzeko beharrezko baliabide teknikoen instalazioak egokitzeak dakarkion kostua.

HAMAHIRUGARRENA. - Telekomunikazio kanalizazioen erabilera lagatzea

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak konpromisoa hartzen du gaur egun existitzen diren kanalizazioen inbentario osoa igortzeko eta, hala dagokionean, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari lagatzeko bere eskumenak gauzatzeko behar dituenen erabilera.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak alde aurretik informatuko du telekomunikazio kanalizazioak behar dituzten eraikuntza proiektuen gainean eta, hala dagokionean, baita Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak zirkulazioaren arloan dituen eskumenak baliatzeko eskatu dituenak ere, une horretan zehazten diren baldintzetan.

Atal honetan ezarritako konpromisoak betetze aldera, behar diren lanabes juridikoak formalizatuko dira.

Hala ere, kanalizazio horiek errepideko jabari publikoko zonan egonez gero, horren legezko araubidea izango da aplikagarria. Ondorioz, gune horretan edozein jarduketa egin behar izanez gero errepidea aldatzeko edo hobekuntzak egiteko eta horrek kanalizazioetan eraginik izanez gero, ez dio kalte ordainerako eskubiderik ekarriko lagatzaileari.

Euskadij para realizar el intercambio de información viaria para mejorar la seguridad vial.

El Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco se encargará del coste de mantenimiento de la fibra óptica y del alquiler por la utilización de la canalización.

En cualquier caso, el coste que a cada parte ocasione la adaptación en sus instalaciones de los medios técnicos necesarios para poder realizar el intercambio de información se asumirá por cada una de ellas.

DECIMOTERCERA. - Cesión del uso de canalizaciones para telecomunicaciones

El Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava se compromete a remitir un inventario completo de las canalizaciones existentes en la actualidad y a ceder, en su caso, a la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco el uso de las que ésta requiera para el ejercicio de sus competencias.

El Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava informará también con suficiente antelación sobre aquellos proyectos de construcción que incorporen canalizaciones para telecomunicaciones, incluyendo, en su caso, aquellas que hayan sido solicitadas por la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco para el ejercicio de sus competencias en materia de tráfico, en las condiciones que en tal momento se determinen.

Con el fin de dar cumplimiento a los compromisos adquiridos en el presente apartado, se formalizarán los instrumentos jurídicos que procedan.

En todo caso, estando ubicadas dichas canalizaciones en la zona de dominio público de la carretera, será aplicable el régimen legal propio de ésta, y, en consecuencia, cualquier actuación en el mismo por motivo de la modificación o mejora de la carretera que afecte a dichas canalizaciones no determinará derecho a indemnización alguna al cesionario.

HAMALAU GARRENA. - Hiriarteko bideetan zirkulatzen duten bidaiarien eta salgaien garraiorako ibilgailuen zaintza eta kontrol eginkizunak betetzeko Arabako Foru Aldundiak onetsitako Arabako Lurralde Historikoko errepideko garraioa ikuskatzeko planen garapena koordinatzea eta lankidetzaz aritzea

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute beren urteko planak koordinatzeko eta gauzatzen laguntzeko. Plan horiek honako hauek dira: foru organoaren eskumeneko lurreko garraioa ikuskatzeko plana eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren trafikoa kontrolatzeko eta zaintzeko plana.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Trafiko Zuzendaritzak trafikoa arautu, antolatu, kudeatu eta zaindu behar du, Ertzaintzaren laguntzarekin. Hiriarteko bideetatik zirkulatzen duten bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuak ere zaindu eta kontrolatu behar ditu bereziki.

Horiek horrela, eta garraioen arloko eskumen eremuaren arabera, Ertzaintzaren laguntza izango da foru organoaren eskumeneko lurreko garraioa ikuskatzeko planak betearazteko.

Arabako Foru Aldundiak unean-unean jakinaraziko dizkio Arabako Trafikoko Lurralde Unitateari gidalerro berriak, arau berrikuntzak, EBko estatu kideek hartutako aldi baterako salbuespenak eta abar, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak edo beste erakunde publiko batzuek helarazi dizkiotenak eta hiriarteko bideetan garraio ibilgailuak zaintzeko eta kontrolatzeko prestakuntza interesa dutenak.

HAMABOS GARRENA. - Bestelako informazioa eta informazioa erabiltzea

Bi administrazioek informazioa eskatu ahalko dute aurreko puntuetan sarturik ez dauden gaien buruz, baldin eta informazioa legez ezarrita dituzten eskumenak gauzatzeko baliatzen badute.

DECIMOCUARTA. - Coordinación y colaboración en el desarrollo de los planes de inspección del transporte por carretera del Territorio Histórico de Álava aprobados por la Diputación Foral de Álava en el ejercicio de las funciones de vigilancia y control de vehículos destinados al transporte de viajeros y mercancías que circulen por vías interurbanas.

Las partes firmantes se comprometen a coordinarse y colaborar en la ejecución de sus respectivos planes anuales, de inspección del transporte terrestre de competencia del órgano foral, y de control y vigilancia del tráfico de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco.

Conforme a la legislación vigente, la Dirección de Tráfico ejerce las funciones de regulación, ordenación, gestión y vigilancia del tráfico, contando para ello con la Ertzaintza. En particular, también ejerce la vigilancia y control de los vehículos destinados a transporte de viajeros y mercancías que circulen por vías interurbanas.

En este sentido, y de acuerdo con el ámbito competencial en materia de transportes, los planes de inspección del transporte terrestre competencia del órgano foral contarán para su ejecución con el apoyo de la Ertzaintza.

La Diputación Foral de Álava, informará puntualmente a la Unidad Territorial de Tráfico de Álava, de las nuevas directrices, novedades normativas, excepciones temporales adoptadas por los Estados miembros de la UE, etc., que le hayan sido trasladadas desde el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana u otros organismos públicos, y que resulten de interés formativo para la vigilancia y control de los vehículos de transporte en las vías interurbanas.

DECIMOQUINTA. - Otra información y uso de la información.

Ambas administraciones podrán solicitar información sobre otras materias no incluidas en los puntos anteriores, siempre y cuando la información sirva al ejercicio de las competencias que legalmente tienen atribuidas.



Hala eginez gero, bi aldeek konpromisoa hartzen dute eskatutako informazioa ahalik eta lasterren igortzeko.

Lagatako informazioa bakar-bakarrik erabili ahalko da administrazio esku hartzaileek beren gain hartzen dituzten eskumenak betetzeko, eta, ez da inola ere baimenduko lagapenaren xedearekin zerikusirik ez duen bestelako erabileretako, hala nola zabalkunde publikoa ematea edo beste administrazio edo partikular batzuei lagatzea.

HAMASEIGARRENA. - Baimenak eta bestelako prozedurak izapidetzea

Administrazioek besteak hala eskatuta izapidetu beharreko prozedurei dagokienez, eta kasu bakoitzean indarrean dagoen prozedurazko arautegia betez, bi aldeek konpromisoa hartzen dute prozedura horien izapidetzea arintzeko, horiek ahalik eta eperik laburrenean ebatziz.

HAMAZAZPIGARRENA. - AP-1eko ekipamendua Trafiko Zuzendaritzaren Garraio Sistema Adimenduan integratzea

Burgosko probintzia mugatik hurbil dagoen AP-1 autobideko zatian dagoen ekipamendua (bi kamera eta mezu aldakorreko panel bat, eta horien euskarri egiturak, kanalizazioak eta hornikuntza elektrikorako eta komunikaziorako ekipamendu osagarria) Trafiko Zuzendaritzaren Garraio Sistema Adimenduan integratuko dira.

HAMAZORTZIGARRENA. - Jarduteko protokoloa

Aldeek hitzarmena betearazteko izenpetzen duten protokoloan ezarriko aurreko klausuletan ezarritako informazioa trukatzeko erabiliko den metodologia.

Duen izaera teknikoa aintzat hartuz, protokoloaren sinadura eskuordetzen zaie EAEko trafikoa eta Arabako Lurralde Historikoko errepideak kudeatzeko arloen titularrei. Hala finkatutako metodologia egokitu ahalko zaie hitzarmen hau betearazteko protokoloa

En este caso, ambas partes se comprometen a trasladar la información solicitada con la mayor celeridad posible.

La información cedida únicamente será utilizada para el ejercicio de las competencias que las administraciones intervinientes tienen encomendadas, sin que, en ningún caso, se admitan otros usos que no tengan relación con el objeto de la cesión, tales como divulgación pública o la cesión a otras Administraciones o particulares.

DECIMOSEXTA. - Tramitación de permisos, autorizaciones y otros procedimientos

En relación con los procedimientos que deban tramitar cualquiera de las Administraciones a instancia de la otra, y sin perjuicio del respeto a la normativa procedimental vigente en cada caso, ambas partes se comprometen a agilizar la tramitación de dichos procedimientos, resolviendo los mismos en el mínimo plazo posible.

DECIMOSÉPTIMA. - Integración del equipamiento de la AP-1 en el sistema ITS de la Dirección de Tráfico.

El equipamiento existente en el tramo de la autopista AP-1 cercano al límite provincial con Burgos, dos cámaras y un panel de mensaje variable, junto con sus estructuras de soporte, canalizaciones y equipamiento accesorio de alimentación eléctrica y comunicaciones se integrarán en el sistema ITS de la Dirección de Tráfico.

DECIMOOCATAVA. - Protocolo de ejecución

La metodología a utilizar para el intercambio de la información detallada en las estipulaciones anteriores se fijará en el protocolo que las partes suscriban en ejecución de este convenio.

En consideración a su carácter técnico, la firma del protocolo se delega en los titulares de las áreas de gestión de tráfico de la CAPV y de carreteras del Territorio Histórico de Álava. La metodología así fijada podrá ser adaptada a los cambios tecnológicos que se produzcan mediante la

aldatzearen bidez izan daitezkeen aldaketa teknologikoei.

HEMERETZIGARRENA. - Hitzarmenaren jarraipen batzordea

Hitzarmen honen jarraipen batzordea osatzen da, hitzarmen honen inguruan sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konpontzeko. Batzordea alderdi sinatzaile bakoitzeko bi pertsonak osatuko dute. Pertsona horiek honako hauek izendatuko dituzte: EAEko Seguritasuneko sailburuak eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, Arabako Foru Aldundiaren ordezkarietan.

HOGEGARRENA. - Araubide juridikoa eta jurisdikzio eskumenduna

Informazioa lagatzeko hitzarmen hau administratiboa da, eta, hortaz, haren xede dela eta, ez zaio aplikatzen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoa, bat etorritz 4. artikulutik 11. artikulura ezarritakoarekin.

Jarraipen batzordeak ezin baditu konpondu sortzen diren auziak, alderdiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

HOGETA BATGARRENA. - Araubide ekonomikoa

Hitzarmen honek ez du inolako betebeharr ekonomikorik sortuko alderdi sinatzaileen artean. Halakorik gertatuz gero, alderdi bakoitzak bere gain hartuko du hitzarmenaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabide tekniko propioak bere instalazioetara egokitzearen ondoriozko kostu ekonomikoa.

HOGETA BIGARRENA. - Datuak babestea

Datuak eta informazioa lagaz gero, nahitaez bete behar dira 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Arautegiak pertsona fisikoak babesteko datu pertsonalen tratamenduari buruz xedatutakoa eta Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak

reforma del protocolo en ejecución del presente Convenio.

DECIMONOVENA. - Comisión de Seguimiento del convenio

Se crea una Comisión de Seguimiento del presente convenio con la función específica de resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse. La comisión estará integrada por dos personas por cada una de las partes firmantes y que serán designadas por el Consejero de Seguridad, por parte de la CAPV, y por el Diputado Foral de Infraestructuras Viarias y Movilidad en representación de la Diputación Foral de Álava.

VIGÉSIMA. - Régimen jurídico y jurisdicción competente.

El presente Convenio de Colaboración es de carácter administrativo y, por tanto, por su objeto está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector público, de conformidad con lo establecido en los artículos 4 a 11.

Si no fuera posible solucionar los litigios surgidos por la Comisión de Seguimiento, las partes se someten a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

VIGESIMOPRIMERA. - Régimen económico.

El presente Convenio no generará ningún tipo de obligación económica entre las partes firmantes. En caso de producirse, cada parte asumirá el costo económico que le ocasione la adaptación en sus instalaciones de los medios técnicos propios que sean necesarios para la consecución de los objetivos del convenio.

VIGESIMOSEGUNDA. - Protección de datos

La cesión de datos y de información deberá respetar, en todo caso, los postulados del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de

Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoa.

HOGETA HIRUGARRENA.- Indarraldia, berrikustea eta suntsiaraztea

Hitzarmen hau izenpetzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean eta lau urteko indarraldia izango du. Indarraldia amaitu aurretik, alderdiek hitzarmena luzatzea erabaki ahal izango dute, berariaz eta idatziz, beste lau urtez, gehienez ere.

Era berean, alderdiek, ados jarrita eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean, hitzarmena berrikusi ahal izango dute haren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa denean. Aldaketarik gertatuz gero, hitzarmenean sartu beharko dira eta alderdiek sinatu beharko dituzte.

Hitzarmena bertan behera utzi ahal izango da bi alderdiak ados jartzen badira, idatziz adierazita, edo alderdietako batek hitzarmena salatzen badu. Salaketa beste aldeari idatzizko jakinarazpen bidez egin behar da, gutxienez epemuga edo luzapenetako edozein izan baino hiru hilabete lehenago. Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan jasotzen diren suntsiarazpen kausa guztiak aplikatzekoak izango zaizkio.

Bi aldeek hala adierazten eta onartzen dute, eta adostasuna agertzeko, hitzarmenaren bi ale izenpetzen dituzte goiburuan zehaztutako tokian eta egunean.

Carlos Ibarlucea Martínez
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko
foru diputatua
Diputado Foral de Infraestructuras Viarias y
Movilidad

Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

VIGESIMOTERCERA -. Vigencia, revisión y resolución.

El presente convenio entrará en vigor el día siguiente al de su firma y tendrá una vigencia de cuatro años. Antes de la finalización de su vigencia, las partes podrán acordar su prórroga, de forma expresa y por escrito, por otro periodo de hasta cuatro años adicionales.

Asimismo por mutuo acuerdo, y durante su vigencia, las partes podrán revisar el Convenio cuando resulte necesario para la mejor realización de su objeto. De producirse, los cambios habrán de incorporarse al Convenio y ser suscritos por las partes.

El Convenio podrá ser resuelto por mutuo acuerdo de las partes, manifestado por escrito, o por denuncia hecha por cualquiera de las partes. La denuncia deberá realizarse mediante notificación por escrito remitida a la contraparte, con un plazo mínimo de tres meses de antelación a la fecha de su vencimiento o de cualquiera de sus prórrogas. Asimismo, le serán de aplicación todas las causas de resolución contempladas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Así lo dicen y otorgan ambas partes y en señal de conformidad, en duplicado ejemplar, lo firman en el lugar y fecha del encabezamiento.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Segurtasun Sailburua Eusko Jaurlaritza
Consejero de seguridad
Eusko Jaurlaritza